

**1/2026 ZIRKULARRA, MAIATZAREN 18KOA, ONDARE ETA KONTRATAZIO ZUZENDARITZARENA, DOKUMENTAZIOA KONTRATAZIO BATZORDE NAGUSIARI (KKK) BIDALTZEKO PROZEDURARI BURUZKOA**

Orain arte, Kontratazio Batzorde Nagusiak sailtako kontratazio-espedienteei lotutako dokumentazioa jaso izan du hainbat kanalen bidez (paperezko formatua, posta elektronikoa, besteak beste).

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 5. artikulua 8. apartatuaren arabera, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenera artean dago honako hau:

«[...] c) Kontratazioaren arloko zirkularrak egitea eta gomendioak edo gidalerroak onartzea.

Informazioaren trazabilitate integrala bermatzeko, informazioaren transmisioan segurtasuna indartzeko eta administrazio-koordinazioa optimizatzeko, zirkular honen bidez jakinarazten da dokumentazio hori bidaltzeko eta jasotzeko prozedura eguneratu dela.

Ondorioz, eta Kontratazio Batzorde Nagusiak (KKK) kontratazio-mahaiaren eginkizunak betetzen dituen kontratazio-espedienteak izapidetzean efizientzia indartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honako jarraibide hauek ezartzen dira:

1. Espedienteari alta emateko, ezinbestekoa da gutxienezko datu hauek ematea KKKri:

- Erakunde sustatzailea (adib.: Hezkuntza Saila).
- Kontratazio-organoa (adib.: Hezkuntzako sailburua).
- T Kontratu-mota (adib.: Zerbitzu-kontratua).
- Dagokion titulua (gaztelaniaz eta euskaraz).
- Izapidegileekin harremanetan jartzea: izena, helbide elektronikoa eta telefonoa (Kontratazio Plataformako "Prestatzeko jarduketak" atalean dagokion dokumentazioa bidali eta jasotzeaz arduratzen den pertsona).

2. Hauek dira informazio hori bidaltzeko bideak:


- Posta elektronikoa: ccc-kbn@euskadi.eus.
- Erregistro ofiziala.

3. Espedienterako sarbidea kontratazio-plataformaren bidez::

- Bidalitako ezinbesteko datuekin, KKKn alta ematen zaio espedienteari kontratazio-plataforman.
- KKKk espediente-zenbakia emango die izapidetzeko ardura duten pertsoneri (dagokion sailak aldeztuz aurretik emandako kontaktua).
- Zenbaki horrekin, izapidegileak espedientera sartuko dira. Horretarako, **aldeztuz aurretik alta emanda egon behar dute kontratazio-plataforman**.
- KKKk "Erakundeak" fitxako "Dokumentazioa eskura dezaketen beste pertsona batzuk" atalean sartuko ditu pertsona horiek ere abisuak jasotzeko ditzaten.

4. Espedientearen hasierako dokumentazioa kontratazio-plataforman kudeatzeko jarraitu beharreko urratsak:

- Joan "Fitxategiak" fitxako "Prestaketa-jarduerak" atalera.



- Atal honen barruan, aukera hauek daude:

1. "GEHITU" eta "GEHITU ETA BIDALI OHARRA" aukerak:

- '*Oharra gehitu eta bidali*': data, ordua eta erabiltzailea erregistratuta geratzen dira, eta automatikoki abisu bat bidaltzen zaie izapidegileei. Ohar bat bidaltzen du gehitutako dokumentu bakoitzeko.
- '*Gehitu*': data eta ordua erregistratuta geratzen dira, baina ez erabiltzailea. Abisurik ere ez da bidaltzen.

- Hala ere, azken aukera hori interesgarria da hainbat dokumentu aldi berean sartzeko. Dokumentu-multzo bakoitzeko abisu bakarra jasotzeko, aukera horren eta **azken dokumentuaren bidez gehitzen dira, «Gehitu eta Bidali oharra» aukeraren bidez**, KKKko izapidegileei dagokion abisua irits dakien.

- Dokumentu bakoitza sartzean, fitxategi mota hautatu behar da menu zabalgarritik (beharra justifikatzeko memoria, administrazio-klausula partikularren agiria, eskatutako kaudimenaren/sailkapenaren justifikazioa, espedientea hasteko ebazpena...).

2. "EZABATU" aukera:

- "Ezabatu" aukerak ez du abisurik bidaltzen, eta ez du erregistrorik uzten. Horregatik, dokumentu bat ezabatzen bada, urrats hauetako bati jarraitu behar zaio:

- Horren ordezt beste bat gehitu behar ez bada: fitxategia ezabatu eta dokumentu berri bat bidali 'Gehitu eta Bidali oharra' ataletik, ezabatu den dokumentua eta horren arazoia adierazteko.
- Horren ordezt beste bat gehitzen bada: Fitxategia ezabatu eta berria gehitu, 'Gehitu eta bidali oharra' aukeraren bidez, oharren laukian adieraziz zer dokumentuk ordeztzen duen eta, ahal bada, ordezkapen horren arazoia aipamen labur bat.

Gehitu erregistroa ×

+ Fitxategia igo

Fitxategi mota *

[Aukeratu]

Fitxategiko oharrak, gaztelaniaz

Fitxategiko oharrak, euskaraz

EZEZTATU GORDE GORDE ETA JARRAITU



3. "EDITATU" aukera:

- "Editatu" aukerak ez du abisurik bidaltzen, eta ez du erabiltzaile-erregistrorik uzten. Beraz, dokumentu bat aldatzen bada, ezabatzea eta berria gehitzea gomendatzen da, aurreko puntuan adierazitako moduan.

4. "DESKARGATU" aukera:

- "Deskargatu" aukeraren bidez, aldeztatik hautatutako fitxategia deskarga daiteke.

5. KKKk dokumentuak aztertuko ditu, eta zuzenketaren bat egin behar bada, "Prestatzeko jarduketak" atalean sartuko du, eta dagokion oharra bidaliko die izapidegileei.

6. Bidalitako dokumentuen trazabilitatea horrela ziurtatuta geratzen da Kontratazio Plataforman. Era berean, KKKk espedientea prestatzeko fase horri dagozkion dokumentuak ere erantsiko ditu (adibidez, txosten juridikoa), eta abisua bidaliko die izapidegileei.